

# Bost urteko proiektua, bizimoduz aldatzeko

Errumaniatik bizitza hobearen bila etorri dira romiak. Astigarragatik, Donostiako Loiola eta Martutene auzoetatik, eta Hernanitik kanporatu dituzte. Astigarragara itzuli dira, autobidearen zubipera, eta oraingoan ez bidaltzea erabaki du Udalak. Bost urteko proiektua prestatu du Eusko Jaurlaritzarekin, Diputazioarekin eta Romi bidean elkartearekin batera. Romiek hainbat baldintza bete beharko dituzte orain dauden egoeratik atera nahi badute.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

Etxolak beraiek eraiki dituzte. Ez dute ur edangarririk eta argindarra tarteka. Argazkia iazko uholdeen ondorengoa da.

JAVI JULIO



## ERRUMANIAR IJITOAK

“EGUN ON, AITOR. Onintza nauzu, ARGIA aldizkariko kazetaria. Astigarragan, Urumea ibai ondoan bizi diren errumaniar ijitoei buruzko erreportajea egin nahi dut. Zuekin, Romi bidean elkartarekin, harremanetan jartzeko esan didate. Haien txabola gunera joan nahiko nuke, eta argazkilaria ere nirekin etorriko litzateke”. Telefonoaren bestaldean elkarteko Aitor Martinez gizarte langilea daukagu: “Axola ez bazaizu ez gara joango hara, dagoeneko hainbat kazetari izan da eta zirkuko tximino sentitzen hasiak dira. Argazkiak neuk emango dizkizut eta elkartaren egoitzan elkartuko gara. Errumaniar familia bat gonbidatuko dugu zurekin hitz egiteko”.

«Sorina dut izena eta 49 urte dauzkat. Sei ume dauzkat, bost Errumaniar, eta neska bat hemen, Espainiar, nirekin eta nire senarrarekin. Duela bost urtetik gaude Espainiar.

Espainiara etorri gara lana aurkituko dugula eta Errumaniar baino pixka bat hobeto biziko garela pentsatuz. Alaba txikiarentzat etorkizuna eraiki dezakegula uste dugu. Gaztelania non ikasi genezakeen galdetu genuen. Senarra gaixo jarri zen eta ez zeukan paperik operatzeko eta ezin zuen lanik egin. Beharrezkoa izan zen ni eskera joatea. Aurpegian negar-malko asko nituen eta beldurra neukan ez ote nuen nahiko diru bilduko janaria erosteko. Orain pixka bat hobeto nago, nire senarra ondo dagoelako, eta alaba Hernanira doa eskolara duela hiru urtez geroztik. Bi urte daramatzagu senarra eta biok gaztelania ikasten. Bizitza hobea espero dugu, familia langilea garelako. Asko gustatzen zaigu, hemen, Espainiar, bizitzea».

Sorinak kazetariarentzat prestatutako idatzia da. Gaztelaniaz eskribitu du eta Ileana Balacik (elkarteko kidea eta interprete lanak egiten dituen errumaniar ez ijitoea) irakurri digu, “Sorina oso sentibera da eta negarrez hasiko litzateke idatzia irakurtzen saiatuko balitz”. Irakurketa baino lehen hizketaldi luzea izan dugu Donostiako Intxaurren auzoan, elkartaren egoitzan. Aitor Martinez eta Balacirekin, Sorina eta Marcelekin jardun dugu. Azken biek, senar-emazteek, haien bizitza kontatu digute.

### **Sorinak eta Marcelek ez dute alde egin nahi**

Sorinak lehenengo senarrarekin izan zituen bost seme-alabak beren kabuz bizi dira Errumaniar. Helduak dira, lanbidea eta etxea dute. Sorina ez da etengabe leku-aldatuz bizi izan den romia, eta 17 urtez egin du lan. Errumaniar, lantegi bateko bulegoak, polizia etxea

eta udala garbitzen zituen. Zapata fabrika ere jardun zuen oinetakoak egiten. Lantegiak alokatutako etxean bizi izan zen urte luzez, harik eta fabrikak hondoa jo eta etxebizitzak salgai jarri zituen arte. Ez zuen erosterik izan, eta aterperik eta lanik gabe geratu zen. Ordu-rako Marcelekin, bigarren senarrarekin, zen.

Marcelek maiz entzuna zuen “Sanse” zela emigratzeko toki ona, han dirua zegoela. Donostiaz ari ziren, noski. Seniderik, lagunik, ezagunik izan gabe ere, gurera etorri zen. Honela deskribatu du etorrera: “Loiola auzoan nengoen, bakarrik, bankuan eserita, negarrez. Ez nekien zer egin. Gizon bat zaborrez betetako gurdiaekin pasa zen eta ea zergatik ari nintzen negarrez galdetu zidan. Gose nintzela esan nion. Bost euro eman zizkidan”. Lo egiteko tokia aurkitu zuen eta beti hara itzuliko zela erabaki zuen. Zuzen aurrera ibili,

zer zegoen ikusi, eta berriz lotokira itzultzen zen; eskuinera edo ezkerredera bidea egin eta gauza bera, berriro babesera. Marcelek bazekien errumaniarrak han inguruan bizi zirela, baina lehen kolpean ez zituen aurkitu. Gero askorekin egin zuen topo.

Marcel duela sei urte iritsi zen Euskal Herrira eta Sorina

duela bost urte. Hainbat lekutatik bota dituzte, eta Astigarragako Udala izan da haien aldeko apustua egin duen udal bakarra. Urumea ibaiertzean bizi dira, txabolatan.

Marcelek, beste errumaniar ijitoei moduan, txatarrarekin egiten zuen lan; bildu eta txatartegi saldu. Gaixotu egin zen ordea, eta lanik egin ezinda geratu zen. Sorinak behea jo zuen orduan. Ez da garai hura kontatzeko gauza, negargura datorriko, eta Balacik kontatu digu: “Diru sarrerarik ez zuten, Sorinak, inoiz ez bezala, eskean hasi behar izan zuen. Tristeza eta gogorra egin zitzaion, baina senarrak sendagaiak behar zituen eta Rosana alaba ere beraiekin zeukaten”.

Marcel gaixo zegoela hasi zen familiarekin lanean Romi bidean elkarrekin. Oso pozik daude Udalak eta elkarrekin emandako lagun-tzarekin, babestuta sentitzen dira.

Nahiz eta Astigarragako Udalak eta elkarrekin txabolatan bizi diren errumaniarren bizi baldintzak hobetu, senar-emazteek hiru behar azpimarratu dituzte: lana, etxebizitza eta bizitza hobea (batez ere alabarentzat). Sorinak, tarteka, herritarren baten etxean garbiketa lanak egiten ditu. Kamioizaleek ere deitzen diote zama di-da batean husteko langileak behar dituztenean. Harekin hitz egiten dute, errumaniar gehienak ez bezala, gaztelaniaz moldatzen delako.

**Marcel eta Sorina hainbat lekutatik bota dituzte. Astigarragako Udala izan da haien aldeko apustua egin duen udal bakarra. Urumea ibaiertzean bizi dira, txabolatan**



Senarrak gero eta nekezago du txatarrarekin lan egitea. Kutsadura medio, ezin zaie txatartegiei inolako kontrolik gabe materiala saldu eta langileek autonomo moduan erregistratuta egon behar dute. Txabola gunean bat da autonomoa eta haren bidez moldatzen dira guztiak. Goizero senar-emazteak gaztelania ikastera doaz, eta Sorina sukaldari-zerbitzari ikastaroa ere ari da egiten.

Biei galdetu diegu ea atzerritar eta ijito iza-tegatik jarrera txarrik pairatu duten hemen. Buruarekin ezetz diote, eta Sorinak esan digu gertaera desatsegin bakarra daukela kontatzeko: “Eskean ari nintzela emakume bat etorri zitzaidan eta esan zidan zergatik ari nintzen eskean, gaztea nintzela. Erantzun nion gustura egingo nukeela lan, baina paperik ez nuela”.

Bi galdera egin dizkiogu Sorinari: hemen geratuko zinatekete bizitzen? “Bai, bizitza osoa!”. Errumaniatik ateratakoan pentsatu zenuen beti kanpoan bizi zintezkeela? “Hasieran ez, baina bospasei hilabete igarota bai. Askok gustatzen zait hau. Ni ez noa Errumaniara, ez bada oportetan”.

### Denak ez dira ijito tipiko

Leku-aldatzea bizimodu duten romiak genituen buruan, haien moldera bizitzera ohituta dagoen herria. Martinezek eta Balacik eredu-garriztat dituzte Marcel eta Sorina: “Haien txabolara joan nintzen batean alaba errumaniaraz idazten ari zen, aita deskribatu nahian zebilen. Badiotsut, hiruren artean harreman oso ona daukate. Heziera onekoak dira, Sorinak irakurtzen eta idazten daki, eta errumaniaraz gain, romien hizkuntza ere hitz egiten du. Etxean bizi ziren jaioterrian, ijitoekin eta gainerako errumaniarrekin. Bizitza soziala zeukaten. Marcelek kirol asko egin du, kultu-

Sorina eta Marcel senar-emazteak txabolan. Pozik geratuko lirakeke Astigarragan bizitzen. Gaztelania ikasten ari dira. Sorina sukaldari-zerbitzari ikasketak ere ari da egiten eta Marcelek txatarra biltzen dihardu.

**VITORIA GASTEIZ** ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

**Elebiduna naiz, aberatsa naiz**

## VITORIA-GASTEIZ SARIAK

2011n haur eta gazte literaturaren arloan euskarara egindako itzulpenik onenak eta sarituko direnak honakoak dira:

**Irasagar arbolaren itzalean**  
Patxi Zubizarreta Dorronsoro

**Maitagarri-ipuinetan sinesten zuen printzesa**  
Usoa Wyssenbach Ibarra

**SARI BANAKETA**  
Abenduaren 3an, 13:00  
Gasteizko Udaletxean

## ANTZERKIA

> **Bodologuak**  
Principal antzokia  
Abenduak 3, 20:30  
Prezioa: 2 euro

> **Paradisuko atean**  
Beñat Etxepare antzokia  
Abenduak 21, 19:30

## MUSIKA

> **Kontzertua**  
Ze esatek!  
Jimmy Jazz aretoa  
Abenduak 5

**Abenduaren  
3a, Euskararen  
Nazioarteko eguna**

Elebiduna bazara  
zure bizitza  
hobetuko duzu,  
baita besteona ere

*Maite duzun hura, euskaraz!*





Bi gunetan banatuta daude romiak, bi familia handitakoak dira eta Errumanian zituzten bizitokien ereduak kopiatu dute, etxearen zenbakia eta guzti.

rista izan da. Rosana alabak hiru urte daramatza Hernanin eskolan eta irakasleek estimatzen dute. Sorina ere estimatzen dute gaztelania irakasleek eta garbitzera joaten den etxe jabeek”.

Elkartearen ustez, familia honekin lan handia egin da eta jada prest daude kanpalekutik ateratzeko. Beste kontu bat da baliabiderik baden horretarako eta administrazioak nola erantzun duen. Nabari da Balacik familia preziazten duela: “Udalak abiatutako bost urteko proiektuan buru-belarri sartu da familia, beti daude prest erantzuteko, hemen geratu nahi dute. Zuk galdetu duzu ea nola litekeen hemen bizi nahi izatea Errumanian bezain gaizki biziko badira. Kontua ez da non bizi diren hobeto ala okerrago, kontua da non daukaten bizitza hoberako esperantza. ‘Hemen hobeto’ diotenean, esan nahi dute han eta hemen lan bera eginda hemen hobeto bizi direla”.

### Ehundik gora lagun txabola gunean

Astigarragako errumaniar romien Gipuzkoako bizigunerik jendetsuena da. Urumea ondoan ehundik gora lagun bildu dira txabolatan. Bi gunetan banatuta daude; Balta txurian 57 eta Balta berdean 44. Romi bidean elkarte dena bat balitz bezala aritzen da, baina errumaniarrek ondo bereizita dituzte bi txabola guneak. Batean, herri bateko fami-

lia handia bizi da, eta bestean beste herri bateko familia. Txatarratik eta esketik bizi dira. Haiengana hurbildu zen lehenengoa Astigarragako Mikel Goenaga apaiza izan zen. Ondoren erabaki zuen Udalak ijitoekin lanean hastea. Andoni Garcia alkateak azaldu digu erabaki hura: “Zein da soluzioa, botatzea? Beste aldi batean ere izan ziren Astigarragan eta berriz etorri dira. Hor bildu eta haiez ahaztuko al gara? Apustua egin dugu eta errumaniarrek lanean hasi gara. Astigarragak ez du baliabide nahikorik horretarako. Eusko Jaurlaritzak Romi bidean elkarteari esleitu dio lana”. Jaurlaritzarekin bost urteko proiektua adostu dute eta epe horretan ez dute txabola gunea suntsituko.

Proiektuaren iparra Aitor Martinez gizarte langileak azaldu digu: “Egonkortasuna nahi duten familien alde egingo dugu; umeak ekarri dituztenen, alfabetatzeko prest

daudenen, haurrak eskolara bidaltzeko prest daudenen alde”. Familiek ondoko baldintzak bete behar dituzte, besteak beste: haur guztiek eskolara joan behar dute (2 urtetik gorako denek) eta ezin dute hiru aste baino gehiagorik piper egin; helduek gaztelania eta prestakuntza ikastaroak egiteko borondatea izan behar dute; ezin dira bi hilabete baino gehiagorik txabola guneak kanpo egon; higie-nea zaindu behar dute; lapurretari ez da onartuko. Hamarnaka romik sinatu dute araudia. Hiru hilabeteko jarraipena egiten zaie, eta balorazioa ona bada errolda ematen

zaie. 33 errumaniarrek lortu dute errolda. Protokoloa betetzen ez badute errolda gal dezakete. Elkarteak 123 lagunekin hasi zen lanean eta orain 101ekin jarraitzen du, batzuek alde egin dutelako eta beste batzuek araudia ez dutelako bete. Romi bidean astean hirulau aldiz izaten da Balta txurian eta Balta berdean. Haien lagun-

tzan diete administrazio, eskola eta osasun kontuak bideratzen. Udaltzainek egunean bi aldiz egiten diete bisita.

Protokoloak nolako harrera izan duen galdetu diegu elkarteko bi kideei eta alkateari. Denak akordatu dira haurrak eskolara-tzeaz. Ume nagusiak eskolara eramatea ez dela hain nekeza izan diote, baina 3-4 urtekoek eguna eskolan igarotzea ez zuten ulertzen amek. Orain, amak lasai eta pozik dau-

**Romi bidean elkarteak 123 lagunekin hasi zen lanean eta orain 101ekin jarraitzen du, batzuek alde egin dutelako eta beste batzuek araudia ez dutelako bete**

dela diote, umeak ondo ikusten dituztelako. 24 bat ume eta gaztetxo banatu dituzte Astigarraga, Hernani eta Martutene auzoko eskoletan.

### Harreman bakanak herritarrekin

Errumaniar ijitoek, nomadak izan arren, garai komunistan herrialdetik ateratzerik ez zuten izan. Balaciren ustez, erregimen komunista amaitu zenean ijitoak izan ziren herrialdetik ateratzen lehenengoetakoak: “Bazterketa galanta bizi izan dute ijitoek. Haien bizimodua daukate eta ez zaie gustatzen kontrolatuak izatea. Haien ohiturak eta kultura dituzte, nahiz eta gaur egun atzeratuta geratu. Nukleo itxian bizi dira, gainera-koekin ez daukate harreman sozialik. Laguntza eskatzeko hurbiltzen dira”. Martinezek zehaztu egin ditu Balaciren hitzak: “Bi aldeak daude, haiek gizarte hau baztertzen dute eta guk haiek baztertzen ditugu. Automarjinazio sentimendua daukate: ‘Hemen [txabola gunean] seguru gaudenez ez dugu muga pasako’. Badira sei urtean gaztelania ikasi ez dutenak. Hala ere, ezin da esan inork integratu nahi ez duenik”.

**Familiak baldintzak bete behar dituzte: haur guztiek eskolara joan behar dute; helduek gaztelania eta prestakuntza ikastaroak egiteko borondatea izan behar dute...**

Alkateak astigarragarren errezelok jarri ditu mahai gainean: Nire haurren eskola berera joango al dira? Etxebizitzak emango al dizkiezue? Gu langabezia gaude eta gizarte zerbitzuetako diru-laguntzak haiek jasoko al dituzte? Herritarrek lasaitzeko, Udalak eta elkarteak batzarra egin zuten uztailan. Jendea kezkatuta zegoen, eta orain lasaiago daudela uste dute. Elkartean gustura daude herritarren erantzunarekin. Errumaniarrak ere saiatzen dira herritarrengana hurbiltzen eta prestutasuna azaltzen. Iazko uholdeetan adibidez, orpoz orpo aritu ziren ibai bazterra garbitzen, haien bizitokia hain justu.

Kultura eta bizimodu oso diferentekoak dira, gizarte honetan txertatzeko zailtasunak begi-bistakoak dira, baina Balacik eta Martinezek belaunaldi berriarengan dute esperantza. Eskolara doaz egunero, hemengoekin dabilta, euskara eta gaztelania ikasi dituzte, gizarte hau ezagutuko dute. Aitor Martinez harago doa: “Ez gaitezen ahaztu haur horien gurasoez, oso gazteak dira eta haiek ere badute denbora gure gizartea ezagutu eta integratzeko”. ■



**Hamaika**  
ikusteko, bizitzeko

**Independentzia  
eskura**

“Gure nortasuna hamaika izatea delako”